
FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK / ENTIDADES PUBLICAS EMPRESARIALES FORALES

E.L.A.

L.A.E.

Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari atxikitako Foru Enpresa Erakunde Publikoa den Estatuko Loterien eta Apustuen Bizkaiko Merkataritzako Ordezkaritzak (ELA) Estatuko Loterien eta Apustuen Estatu Sozietateak (ELAES, SA) Foru Aldundiari agindutako funtzio eta ekintza guztiak gauzatzeko ardura du, bera baita ELAESen ordezkaria gure Lurralde Historikoan.

ELAren Ordezkaritzak ELAESen menpe dagoen Estatu Jokoa kudeatzeko ardura du Bizkaian eta eginkizun horren bidez, Bizkaian izaten diren salmenten araberako komisia jasotzen du. Komisio hori ustiapeneko diru-sarrera nagusia da aipatu erakundearen Galdu Irabazien kontuan.

ELAren Ordezkaritzaren eginkizun nagusiak honako hauek dira: Bizkaiko Lurralde Historikoan Estatuko Loterien eta Apustuen Estatu Sozietatearen menpe dauden Joko mota desberdinetako loteriak, jokoak eta apustuak (gaur egunekoak edota etorkizunekoak) kudeatzea, ustiatzea eta komertzializatzea.

Eta, oro har, ELAESen eta Bizkaiko Salmenta Puntu Integralen eta Mistoen (gaur egun 284) Sare Komertzial osoaren arteko bitartekotza egitea, ELAren produktuak modu egokian kudeatzeko eta komertzializatzeko. ELAESek 2018rako, Bizkaian, Eskaintza edo Lehiaketa Publiko bidez hamabi (12) Salmenta Puntu berri izatea aurreikusita izan zuen arren, 2019an iragartzea espero dugu Bizkaiko Lurralde Historikoan salmenta-puntu gehiago izan ditzagun.

La Entidad Pública Empresarial Foral “Delegación en Bizkaia de Loterías y Apuestas del Estado”, (LAE), adscrita al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, está configurada como una entidad de naturaleza pública, cuya gestión consiste en la realización de todas las funciones y actividades encomendadas por la Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado, S.A. (SELAE) a la Diputación, en su calidad de Delegada en nuestro Territorio Histórico.

La Delegación de LAE constituye un ente gestor del Juego estatal en Bizkaia, cuya competencia tenga atribuida SELAE, y por cuya tarea en función de las ventas que se generan en Bizkaia, percibe una comisión que supone el principal ingreso de explotación, en la cuenta de Pérdidas y Ganancias de la mencionada Entidad.

Con carácter genérico se podrían señalar que las funciones de la Delegación de LAE son la gestión, explotación y comercialización de la actividad del juego en sus distintas modalidades de loterías, juegos, apuestas, presentes y/o futuros, sobre las que tenga atribuida la competencia la Sociedad Estatal de Loterías y Apuestas del Estado, S.A., en el territorio Histórico de Bizkaia.

Y, en general, la intermediación entre SELAE y toda la Red Comercial de Puntos de Venta, tanto Integrales como Mixtos –actualmente 284-, existente en Bizkaia para el adecuado y buen funcionamiento de la gestión y comercialización de los productos de Loterías y Apuestas del Estado. SELAE tenía previsto en 2018 dotar a Bizkaia de doce (12) nuevos Puntos de Venta Mixtos mediante el correspondiente Ofrecimiento o Concurso Público, que esperamos sea convocado en 2019 y podamos contar con nuevos puntos de venta en el Territorio Histórico de Bizkaia.



E.L.A.

L.A.E.

2018ko ekitaldian zehar salmentek beherazko joera arina izaten jarraitzen dute, eta 2017. urtearekin alderatuta 2018ko irailaren erdialdean % -0,29koan gaude: joko aktiboek % -0,86ko jaitsiera izan dute; joko pasiboek (Lotería Nacionala), aldiz, % 0,32ko igoera baino ez dute izan. Beraz, salmentak ez dira nahi bezalakoak izan, hau da, ez dira orain dela urte batzuetakoak.

Aipatu salmenta-beherakada gorabehera, salmentek gora egingo dutelakoan gaude, ekonomia bera ere etengabe hazten ari da eta. Horrekin batera, ELAESek 2018ko urriaren bukaerarako aurreikusita ditu zenbait jokotan (lotería primitiva eta joker) aldaketak ezartzea, eta 2018ko uztailean bere jokoetan eskuko telefonoen bidez apostu egiteko zuzeneko aplikazioa (app) ere atera zuen. Gainera, %20ko zerga edo karga ezartzeko gutxieneko zenbatekoa ere igo egin dute; 2018ko uztailaren 5era arte 2.500 €-tik gorako sariei ezartzen zitzaien %20ko atxikipen hori. Egun horretatik aurrera, gutxieneko zenbatekoa (zerga ordaintzetik salbuetsita) 10.000 €-ra igo zen, eta 2019. urtean 20.000 €-tik gorako sariei ezarriko zaie. Hurrengoan, 2020an 40.000 €-ra igoko da muga hori. Halan bada, neurri horiek aintzat hartuta, itxaronpentsu gaude gure sektorea goranzko joeran indarberritzen ikusteko. Beraz, nahiz eta Ordezkaritza honek lehendik ere emaitza negatiboak izan eta balantzeko zenbatekoak ez diren inola ere itxaronpentsuak, 2019rako perspektibak pozgarriak dira, Lurralde Historikoan ekonomiak izan duen hazkundea eta Estatuan arestian esandako guztia kontuan izanez gero.

Bestalde, Madrilén zain gaude kontratua negoziatzeko. Oraindik urtebeteko (1) luzapena dugu gaur eguneko baldintzetan, eta ELAESen nahia al bait lasterren gauzatzea da.

A lo largo del ejercicio 2018 se observan que las ventas siguen en ligero descenso, estando a mitad de septiembre de 2018 en un -0.29% con respecto a 2017 y donde los juegos activos tienen un descenso del 0.86% y en cambio los juegos pasivos (Lotería Nacional) aumentan un imperceptible 0.32%. Las ventas no acaban de repuntar lo que fuera deseable, es decir a los números de hace unos cuantos años.

A pesar del citado descenso de las ventas, tenemos que mirar el futuro con optimismo de cara a un aumento de las ventas, dado que la economía sigue en constante crecimiento, y a ello de vemos unir tanto la implementación por parte de SELAE de modificaciones en varios juegos (la lotería primitiva y joker) prevista para finales de octubre de 2018 y la puesta en escena en julio de 2018 de una app presencial para apostar a los juegos de SELAE a través de los teléfonos móviles, así como la aplicación del incremento en el importe mínimo exento del gravamen del 20%; hasta el 5 de julio de 2018 dicha retención (20%) gravaba los premios superiores a 2.500 €. A partir de dicha fecha el importe mínimo (exento de retención) se elevó hasta los 10.000 €, y para el 2019 se aplicará a los premios mayores de 20.000 €, ascendiendo en 2020 el límite hasta los 40.000 € euros. Con estas medidas estamos esperanzados en ver una reactivación del sector, al alza. Las perspectivas para el 2019 son alentadoras, teniendo en cuenta la mejoría de la economía en el Territorio Histórico, y en el resto del estado amen de lo anteriormente expuesto.; si bien esta Delegación soporta resultados negativos anteriores y los números en balance no son nada halagüeños.

Por otra parte todavía estamos pendientes de la negociación del contrato con Madrid, de momento tenemos una prórroga de un año en las condiciones actuales, siendo voluntad por parte de SELAE, de resolver el contrato lo antes posible.



E.L.A.

L.A.E.

2019. ekitaldirako, 2018. urtean Bizkaian instalatutako salmenta-terminal berriak eta modernoak sendotzea dugu helburu, hartzaileek transakzio komertzialak azkarrago egin ditzaten. Bestalde, esan behar da Ordezkaritzako jarduera komertziala dela-eta, 2017ko joko berberak dituela eta horiek inplementatzea edo aldatzea ELAESen esku dagoela, betiere apustuzaleen joerak kontuan izanik edota beste joko berri batzuk sortu dituelako.

Arestian esan bezala, Madrilekiko negoziazioaren mende gaude. Hala ere, Foru Enpresa Erakunde Publiko honen bilakaera ondorengo hauek markatuko dute: ausazko jokoak, apustuzaleen joko-joerak, jokoetan izaten diren berritasunak (inplementatuak eta aztertzen ari direnak) sendotzeak ala ez sendotzeak eta, batez ere, Madrilekin negoziatzeko dagoen kontratuak.

La dinámica para el ejercicio 2019, pasa por la consolidación de los nuevos y modernos terminales de venta en Bizkaia, instalados en 2018, que dotan a los puntos receptores de una mayor agilidad en sus transacciones comerciales. Por otra parte en referencia a la actividad comercial de la Delegación, se sustenta en los mismos juegos que el 2017, quedando su implementación o modificación a los pertinentes estudios de SELAE, sobre tendencias de juego de los apostantes, o bien a la creación de nuevos juegos.

Como hemos citado anteriormente, estamos sujetos a la negociación con Madrid. No obstante, será el azar, las tendencias de juego de los apostantes, la consolidación o no de las novedades en los juegos (implementadas ya y las que están en estudio), y, lo más trascendente e importante, el contrato pendiente de negociar en Madrid, quienes marcarán el devenir de esta Entidad Pública Empresarial Foral.